

AZTERKETAREN KODEA: COE08



LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ GASTEIZKO UDALEKO KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA LANPOSTUAK JABETZAN BETETZEKO EGONKORTZE-DEIALDI BEREZIA, 20/2021 LEGEARI DAGOZKION EGONKORTZEKO ETA BITARTEKOTASUN-TASA MURRIZTEKO PROZESUEN BARRUAN

GALDETEGIA

DEIALDIA	Kodea	Deialdiaren izena
	COE08	EKINTZA SOZIOKULTURALETADO E.T
DATA	2023KO URRIAREN 26A (13:00)	
Denbora, gehienez:	120 MINUTU	

***** Mugikorak itzalita*****

JARRAIBIDEAK (irakurri arretaz orri hau)

Ez zabaldu esan arte.

Galdetegi honek **20 galdera** ditu. **Galdera bakoitzean dagokion puntuazioa dago adierazita. Probaren gehienezko puntuazioa: 60 puntu.**

Galarazita dago erlojua erabiltzea; gelan horrelakorik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den, 30 minutuan behin, eta denbora bukatzean dela, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, baita azken minutuan ere.

Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa. Galarazita dago errotuladoreak erabiltzea. Galdera-orrietan markarik eginez gero, galderei erantzuteko beharrezkoa denaz aparte, galdera-orria baliogabetu egingo da.

Bete ezazu mahai gainean duzun **IDENTIFIKAZIO-ORRIA**. Idatzi zure NANA, izena, abizenak eta deialdiaren kodea/izena. Orriaren beheko aldean, **IDENTIFIKAZIO-GAKO pertsonalizatu** eta bakarra agertzen da, eta hori ERANTZUN-ORRIETAN kopiatu beharko da. Identifikazio-orria bereiz jasoko da, probaren lehen minutuak igaro ondoren.

ERANTZUN-ORRIAK. Mahai gainean zenbait orri aurkituko dituzu erantzunak idazteko. Idatzi, goiko aldean, **AZTERKETAREN KODEA** (ikusi galdetegi honen goiburua) eta egokitu zaizun IDENTIFIKAZIO-GAKOA. Erantzunak boligrafo urdinez edo beltzez idatziko dira. Probaren amaieran, erantzun-orriak entregatu aurretik, adierazi orri bakoitzean zein den orriaren ordena-zenbakia eta guztira zenbat orri ematen dituzun.

Proba amaitu baduzu, eta izangaiak identifikatzeko lanak dagoeneko bukatu badira, altxatu eskua, zure erantzun-orriak jaso ditzaten. **Ziurta ezazu zuzentzeko diren orriak ematen dituzula —ez zirriborroak—.**

Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Ohar garrantzitsua: AZTERKETA-ORRIETAN EZ idatzi izenik edo NANik, ez sinatu eta ez erantsi zu identifikatzeko bide ematen duen elementurik. EZ ZUZENTZEKO arrazoia da.

Gogoan izan: erantzun labur eta zehatzak eman beharko dira, zuzenketa aurrez zehaztutako irizpideen arabera egingo baita.

Bertaratze-ziurtagiria nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

AZTERKETAREN KODEA: COE08



1. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

1978ko Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikulua arabera, zein dira gastu publiko programatu eta betearazteko bi irizpideak?

2. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 11.2 artikulua arabera, zein dira udalerriaren hiru osagaiak?

3. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Aipatu enplegatu publikoen jokabide-printzipietako lau, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikuluari jarraituz.

4. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 88. artikulua arabera, nork osatzen du "Udalaren Gardentasun Kontseilua"? Aipatu osatzen duten hiru pertsonetatik bi.

5. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Aipatu bileren alorreko sei ekitaldi mota.

6. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Zer baldintza bete behar ditu hiri batek bertan biltzar ekitaldi bat antolatzeko? Aipatu sei alderdi.

7. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Aipatu biltzar batekin lotutako bi jarduera satelite.

8. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Europa biltzar jauregia Passivhaus XXL kategorian sartu da; aipatu hori lortzeko balio izan duten lau ezaugarri.



9. GALDERA Puntuak, guztira: 2 puntu.

Gasteizen Biltzarrak antolatzeko eskuliburuaren arabera —Gasteizko Udalaren Biltzar eta Turismo Zerbitzuak argitaratutakoa—, zenbat hotel-plaza ditu Gasteizek biltzarretan erabiltzeko, 200 plazako marjinarekin goitik eta behetik.

10. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Zer aitortzen dio turismo arduratsuen Biosphere ziurtagiriak Gasteizko hiriari? Aipatu Gasteizko Udalaren webgunean agertzen diren lau adierazle.

11. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Aipatu Vitoria-Gasteiz Convention Bureau-ren sei funtzio.

12. GALDERA Puntuak, guztira: 4 puntu.

Zerrendatu Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren menpeko zerbitzuak.

13. GALDERA Puntuak, guztira: 2 puntu.

Zer da OPC bat eta zertan dihardu?

14. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Biltzarrak antolatzeko eskuliburuaren arabera —Gasteizko Udalaren Biltzar eta Turismo Zerbitzuak argitaratutakoa— zein dira Arabako baliabide turistiko garrantzitsuenak Gasteiztik kanpo, biltzar ondoko programa bat antolatzeko?

15. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Zer aitorten du munduan Gasteizko Santa Maria Katedralak, Done Jakue Bideak izendapenaren barruan?

16. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Zein izan da Gasteizko Udalaren 2016-2021eko Kultura Plan Estrategikoa lantzeko oinarritzko metodologia, eta zertan datza?

AZTERKETAREN KODEA: COE08



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

17. GALDERA Puntuak, guztira: 4 puntu.

Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren arabera, zein dira herritarren zortzi eskubideak?

18. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Zerrendatu irakurketa sustatzeko hamar jarduera mota, Gasteizko udal programazioan errepikatzen direnak.

19. GALDERA Puntuazioa, guztira: 2 puntu.

Zein izan zen Gasteizen Erronka Garbia ziurtagiria lortu zuen lehenengo kultur ekitaldia?

20. GALDERA Puntuak, guztira: 4 puntu.

Aipatu Gasteizko Montehermoso jauregiak herritarrei eskaintzen dizkien bost zerbitzu.